

HELDUEN LITERATURA

Axolagabekeriak irabazten duenean

SUMISIOA

Autorea: Michel Houellebecq.
Itzultzailea: Gerardo Markuleta.
Argitaletxea: Meettok, 2015.
Orrialde kopurua: 286 orri.
Salneurria: 19,90 euro.

Iratxe ESPARZA

Begi zorrotzak eta pentsamendu irekia dira Michel Houellebecqen liburu harrigarri hau irakurri, dastatu eta gozatzeko bi gako. Françoise da eleberriarren protagonista, J. K. Huysmansen –inguruari gordintasunez eta atsekabez begiratzen zion idazle frantsesa– obrari buruzko tesiaren egilea eta Parisko Sorbonan bokaziorik gabeko literatura irakaslea, bera baino gazteago diren ikasleekin oheratzen dena. Etsipenez ere hartzen du Françoisek egokitu zaien garaia, eta Huysmansen obretan hainbeste urtetan murgildu ostean horren bizipenak esperimentatu behar ditu bere existentzia justifikatzeko.

Ondorioz, hasiera batean politikari eskaintzen dion arreta murrizari protago-

nistak jasandako bilakaera azkarra kontrajartzen zaio, besteen erabaki politikoek baldintzatuko baitute bere jokaera. Frantzia gaude eta mendebaldeko herrialdeen hautatze sistema, zentro-errekoreta eta zentro-eskuineko hautagaien arteko txandakatzea, bukatzeaz dago. Hautakundeak iragarritako daude eta oreka puskatuko duten istiluen beldur, Françoisek Paristik ihes egiten du; hala ere, itzultzean Mohamed Ben Abbas, Anaiarte Musulmanaren alderdiaren burua, lehen ministro izendatzen dute.

2022. urteko Paris-Sorbonan unibertsitate islamikoaren estatutu berriak ezarri dira, emakumeak prakak janztara behartzen dituzte, islamera bihurtuz gero irakasleei (gizonei) eskaintako soldatak erakargarriak dira uko egiteko, gizarteak poligamia onartzen du, irakaskuntza salgai dago, eta emakumeak lan-merkatutik ateratzea erabakigarria da langabezia murrizteko eta familia instituzioak aspalditik galdutako erdiguneko paper estrategikoa berreskuratzeko. Houellebecqek eraikitzen duen distopia handi honetan, gailendutako sistemak Françoise xurgatzen du; izan ere, erakusten duen harridura (eta ez espero izango genukeen nazka edo gaitzespena) bigun-



tzen doa, eraldatzen, sistema politiko berriaren onurak disfrutatzen hasten dena. Azken finean, gizon desiragarri bihurtuta, sumisioa onartzea, bizimodu xumetik ateratzea ez ezik, mugarik gabeko materialismoak ahalbidetzen dituen edertasunerako eta plazer sexualerako bidea eta boterea lortzea ere bada. Hala, Houellebecqek irudikatutako etorkizuneko gizarte posibleak aztoratzen gaitu, agian espazioan oso gertu usaintzen dugulako.

Alderdi totalitarioek gizarte totalitarioak eraikitzen dituztela esatea ez da berria, ezta fikzioaren bidez literaturan islatzea ere (“1984”, “Bai mundu berria”, “Fahrenheit 451”); “Sumisioa” liburuan, aldiz, protagonistak ez du bidegabekoa den sistemaren kontra egiten, ez da konfliktuan sartzen bere buruarekin eta plazerrezko bizitza onartzen du inolako damurik gabe. Alabaina, kolektibitate bezala hartuta, liburuan fokalizazioa ere emakumeari dagokiolako nire irakurketan distopia feministaren ideia azpimarratuko dut: Frantzia, aldaketa politikoa gertatu baino lehen, jadanik emakumeek jasaten zuten egoera menpekota zen, eta Anaiarte Musulmanak boterea lortzen duenean joera hori muturrera eramanez eta areagotzen da; beraz, erraz ikusten da gizartearen eta heziketaren sumisioari esker inposatutako dogmak eta arauak generoen arteko botere harremanak sortzen dituztela.

Fikzio politikako eleberririk argigarri honen gaur egungo sozialdemokraziaren hipokrisia sinbolizatzen du eta gizakiaren alienazioa gogorarazten digu Europa osoko gainbehera satirizatuz eta orrialde bakoitzean xuxurlatuz: kontuz, sumisioak makurtzen zaitu.

HAUR LITERATURA

Begirada samurra desberdintasunari

MARTIN

Autorea: Alaine Agirre.
Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga.
Argitaletxea: Elkar, 2016.
Orrialde kopurua: 32 orri.
Salneurria: 13,50 euro.

Lore AGIRREZABAL

Protagonistaren izena darama liburuak: Martin. Baina izenik eman ez zaion narratzaileak kontatzen digu haren berri, bere lagunik onenaren berri.

Gaitasun handiko mutikoa da Martin, besteak beste, eskolako jantokian datozen hamaika egunetan izango den menua buruz ikasten baitu. Baina ez daki ondo hitz egiten eta bere amak baino ez omen dio ulertzen.

Beste askori bezala, marrubiak gustatzen zaizkio Martini ere, baina sudurretik jaten ditu; alkandorak ere gustuko ditu, baina botoi guztiak lotuta; kroketa zale amorratua da, baina beti bederlatzi

jan behar izaten ditu. Bibotea du eta noizbehinka adurra dario ezpainetatik, baina narratzaileari izugarri gustatzen zaio Martinen bibotea eta ez dio burlarik egiten adurra dariolako; izan ere, berak ba omen daki «txikitari arrainontzi oso bateko ura» edan zuela nahi gabe.

Zenbaiten begietan ezaugarri arraroak direnak, narratzaileak interesgarritzat eta dibertigarritzat jotzen ditu. Izan ere, Martin ez da beste gehienak bezalakoa. Batzuentzat desberdina da, beste batzuentzat berezia. Besteak bezain berdina gauza batzuetan, eta oso desberdina beste zenbaitetan, baina horrek guztiak egiten du berezi liburu honetako narratzailearentzat. Bere lagunik onena dela dio eta mihasmenez kontatzen dizkigu Martin berezi egiten duten bere ohitura eta ezaugarriak. Inozentziaz betetako begirada du narratzaileak; baina horren atzean errespetua, onarpena, ulermena eta maitasuna irakur ditzakegu.

Martinengandik, ez ezik, bere lagunarengandik ere ikasteko ugari dugula erakusten digu liburu honek, Martin bezain berezia baita hura ere.



Begirada samur eta goxoa eskaintzen digute Alaine Agirreraren kontakizunak eta Maite Gurrutxagaren ilustrazioak, eta, elkarlan horri esker hitz gutxitan asko esatea lortu dute, erabat osagarria baita bien lana. 32 orrialdeotan, ondoz ondo irakur ditzakegu paragrafo bat eta orrialde osoko ilustrazioa. Agirreraren hitz samurrei Gurrutxagaren ilustrazio fin eta udazken-kolore apalekoek ematen diete segida, amezketarraren ilustrazioak izan ohi duten ukitu nostalgiko eta gozoarekin. Desberdin izateari eskaintako begirada samur, maitagarri eta dibertigarria da biek ala biek lortu dutena.

2015. urtean OEPLI (Organización Española del Libro Infantil) erakundeak antolatzen duen Lazarrillo Album Ilustratua Saria irabazi zuen lan honek. Epaimahai-kideek «testuaren eta ilustrazioaren arteko harmonia, pertsonaien adierazkortasuna, eta, desberdintasunari eta inozentziari egiten dioten omenalditxoan igortzen duten sentsibilitatea» saritu zituzten. Hitz horiek liburuaren esentzia bete-betean deskribatzen dutela baino ezin dezaket esan.